

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA. DATUEK ZER DIOTE?*

Erramun Osa

*Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzako Koordinaziorako zuzendaria.*

Itziar Elortza

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa

Fermin Lazkano

Ikerlaria

Olatz Altuna

Koordinatzaile

Helbide elektronikoa: olatz@soziolinguistika.org

* Artikulu honetan II: Euskal Soziolinguistika Jardunaldian buruturiko mahai-inguruaren eduki nagusia transkribatu da. Jardunaldia Soziolinguistika Klusterrak antolatuta 2009ko otsailaren 20an burutu zen Miramon Zientziaren Kutxagunean, Donostian.

OLATZ ALTUNA. Mahai-inguruaren gaia euskararen ezagutza eta erabilera dugu. Eta oinarria 2006an egindako IV. Inkesta Soziolinguistikoa eta Euskal Herriko V. Kale Neurketa izango ditugu. Bi ikerketa horiek utzitako azterketa eta argazkia egingo dugu. Hiru gonbidatu ditugu: batetik, Itziar Elortza Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren izenean datorrena, Erramun Osa, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik datorkiguna eta Fermin Lazkano ikerlaria eta Soziolinguistika Klusterrak antolatu dituen Hausnartu – Euskal Soziolinguistika Sarien bigarren sariduna.

Mahaia hiru ataletan banatu dugu: lehen zatian bi ikerketa horien ondorioen inguruan arituko gara. Bigarrenean, ezagutza eta erabileraren inguruko datu zehatzak aztertuko ditugu, eta hirugarrenean mahaikideei bere lanarekin lotua dagoen puntu bana jarriko diegu horren inguruko iritzia eman diezaguten.

Aurretik, hizlari bakoitzari eskatu genien hiru ondorio labur aukeratu zezatela, nolabait nabarmenenak direnak.

Itziarren ondorioekin hasiko gara. Berak lehenengo azpimarratutakoa datu itxaropentsua da: euskal hiztun-kopurua hazi egin da. Horrekin batera, erdaldun elebakarren kopurua asko jaitsi da. Bigarren ondorioa: elebidun-mota aldatu egin da, gehiengoaren lehen hizkuntza gaztelania da, eta eskolak eragin zuzena izan du hazkunde horretan, gazteen artean gertatzen baita, bereziki. Eta hirugarren ondorioa: eremu formalagoan eskuratutako hizkuntza-konpetentzia ez da, berez, bizitzako eremu guztietara orokortzen, kale-erabileraren hazkunde motelagoak erakusten duen bezala.

Orain artean elebidun-mota nagusia euskara etxean ikasitakoa baldin bazen, momentu honetan lehen hizkuntza gaztelania duten elebidunak dira, eta horrek eragina du, noski, erabileran.

ITZIAR ELORZA. Hiru ondorio horiek aztertzerakoan inportantea da esatea —gai hauen inguruan aritzen garenean geure buruaren gainean harriak botatzen ari garelako sarri— aurrera goazela, ezta? Eta hiztun-kopurua hazi egin dela. Azpimarratzekoa da erdaldun elebakarren kopurua ere asko jaitsi dela, %59ra jaitsi dela. Horrek esan nahi du gizarte honetan, momentu honetan, aukera asko irekitzen zaizkigula euskara kalean biziartzeko, ikusarazteko eta mugiarazteko. Horretan, *pixka bat es muchorekin* bide bat ireki da eta uste dut inportantea dela, euskaldunen lekua ere gero eta errazagoa gertatzen dela gizartean, momentu honetan.

Bigarrena: elebidun-mota aldatu egin dela esaterakoan zer esan nahi da? Orain artean elebidun-mota nagusia euskara etxean ikasitakoa baldin bazen, momentu honetan lehen hizkuntza gaztelania duten elebidunak dira, eta horrek eragina du, noski, erabileran. Gure aldetik ikusita eskolak eragina izan du horretan. Eskolari begira ikuspegi nahiko ezkorrekin jokatu dugu azken bolada honetan, ereduaren ebaluazioak direla-eta. Hor ere, nik uste, bada garaia esateko eskolak bere lana hobeto egin dezakeela —kalitatez gero hitz egingo dugu gehiago— baina lana egin duela, eta, agian, beste batzuei ere badagokiela pixka bat mugitzea eskolari eskatu zaiona seguru asko gehiegizkoa ere badelako.

Eta azken puntua, kale erabilerarekin oso lotua. Elebidun horien kopuru handi batek behintzat, eskolan jasotzen du hizkuntza hori, eta guk neurtu egiten diegu guztiz bestelako testuinguruetan. Eta alde hor dago. Hizkuntza-konpetentzia mugatua dute, testuinguru jakin baterako eta zeregin jakin batzuetarako garatutakoa, eta neurtzen dugun erabilera beste mota batekoa da.

O.A. Ondoren Erramunen Osaren ondorioak azalduko ditugu.

Lehenengoa: Euskararen erabilera ez da ezagutza bezain beste hazten ari. Hori normala da hizkuntzaren erabileran hiztunen hizkuntza-gaitasunak, harreman-sareak eta erabilera-eremuak erabakigarriak direlako.

Bigarrena: ezagutzak ez ezik erabilerak ere gora egin du, eremu formaletan batez ere. Eta hirugarrena: gizarte osoko erabilera kontuan har-

*Elebidun horien kopuru
handi batek behintzat,
eskolan jasotzen du
hizkuntza hori, eta guk
neurtu egiten diegu guztiz
bestelako
testuinguruetan.*

tu ordez elebidunen erabilerari erreparatzen badiogu, elebidunen kopuru gehitu denaren arren, erabilera ez da hazi.

ERRAMUN OSA. Zenbait baieztapen egin aurretik nik uste komeni dela gizartearen ezaugarri sozio-demografikoak oso aintzakotzat hartzea, ikusteko, zer bilakaera eduki dezakeen horrek etorkizunean, eta horrek zer eragin izan dezakeen hizkuntzaren indarberritze-ahaleginean.

Ezagutzari buruz hitz egitean nik azpimarratu nahi nituzke hiruzpatalau kontutxo kontuan hartzekoak:

1981ean, buruz ari naiz, 30 urtez azpikoak gutxi gorabehera biztanleria osoaren %25 ziren; 25 urte beranduago, biztanleria osoaren %13 ziren. Adin tarte horren ekarria apaltzen ari da jaiotze-tasa murrizta delako, nahiz eta goranzko joera bat ikusten den 2001 eta 2006ko datuetan.

1981ean, 30 urtetik gorako biztanleria gutxi gorabehera %50a zen, 25 urte beranduago %70a da. Horrek erakusten du zahartze-prozesuak zer nolako garrantzia duen, aintzat hartuta pertsona helduen euskalduntzea ez dela haur eta gazteenen parekide.

1996 eta 2006ko datuak hartzen baldin baditugu etorkinen etorrerari dagokionez, etorkin-kopurua hamarkada batean 6 halakotu egin da, eta 2001 eta 2006ko datuak erkatzen baldin baditugu lau aldiz hazi da oso denbora laburrean. Eta horiek, batez ere, 30 urtez azpiko pertsonak dira; erdaldunak dira, %50a latinoamerikarra da, eta laurden bat Europatik etorritakoa, batez ere, ekialdekoa.

15 urtez azpiko gazteez hitz egiten gabiltzanean, gaur egungo datuek erakusten digutena %75 goitik elebidunak direla da. Baina horien pisu sozio-demografiakoa apala da. Beraz, ezagutzari buruz eta apaltze-ari buruz hitz egiten ari garenean oso-oso aintzakotzat hartu behar ditugu gure gizartearen ezaugarri sozio-demografiako horiek.

Erabilerari buruz hitz egiten denean, kontuan hartu behar dugu elebidunen kopuruaren hazkundera non gertatzen ari den. Gaur egun, elebidunen erdia gune ez euskaldunetan bizi da, kontzentrazio demolinguitikoa %40 azpitik duten gune eta hirietan. Gainera, gazteak dira: 1991ean gutxi gorabehera 16-24 bitartekoak %15 inguru zen elebiduna. 15 urte beranduago %55a da elebiduna. Gazteak gero eta euskaldunagoak dira, ingurune erdaldunetan bizi dira, horiek dituzten harreman-sareak batez ere erdaldunak dira, euskara baliatzeko dituzten aukerak urriak dira, eta, gainera, hizkuntza baliatzeko duten gaitasun erlatiboa urria da. Beraz, horrek eramateen gaitasun erabilera nekez hazi daitekeela, eta ezagutza ez hain beste. Amaitzeko, inportantea izango da batez ere, gaur egungo gazte-belaunaldi horien jokabidea etorkizun hurbilean, batez ere, familia-transmisioan, horrek eragingo duelako etorkizuneko gazte-belaunaldien hizkuntza-gaitasuna handiagoa izateko, gaitasun erlatiboa are hobea izateko, eta testuinguru horretan horien erabilerarako aukerak eta gaitasunetan aurrerapauso erabakigarriagoak gertatzeko.

Gaur egungoari dagokionez, iruditzen zait gaitasunean ez ezik hizkuntza bera baliatzeko aukerak ugaltzea, batez ere hirietan eta herri handietan, erabakigarria dela, arnas-guneak sortzearekin batera. Horrek ekarriko du hizkuntzaren gaitasunean aurrera egin ahal izatea eta hizkuntzaren erabileran ere poliki-poliki aurrera egitea.

O.A. Fermin Lazkanoren ondorio nagusiak.

Fermin Lazkano. Nik erabileraren azkeneko inkesta guztiak bildu ditut, eta erkatu ditut erabilera eta ezagutzaren datuak koadro-grafiko baten bitartez. Grafikoan 45 gradutako lerroa agertuko litzateke baldin eta ezagutza-datu jakin bati erabilera-datu bat balegokio. Baina ikusten dugu kurba berdina dela urterik urte. Esan nahi da ezagutza jakin bati beti sabai eta lur baten artean dagokiola erabilera. Esaten denean normala dela ezagutzaren arabera haztea erabilera, nik diot ez dela horrela: hori ez da normala. Atalase-puntu bat dago, urterik urte ateratako medietan oinarrituta, %40aren inguruan. Puntu horretara arte pertsona bat baino gehiago euskaldunak behar dira euskara erabiltzen duen euskaldun bat irabazteko. Aldiz, puntu horretatik aurrera euskalduntzen den pertsona bakoitzeko, erabiltzen duen lagun bat baino gehiago irabazten da. Hori urtetik urtera konfirmatu egiten den errealitatea da. Beraz, erabilera baldin bada gure helburua, jakin behar dugu lehenbailehen, harrapatu behar dugula %40ko ezagutza-maila. Beraz, nire tesia da hizkuntza-politikak pixka bat, lekua-aren arabera moldatu behar direla eta ezinbestekoa dela ezagutzan bultzada handi bat ematea gero erabileran benetan eragin nahi badugu.

O.A. Bakoitzak esandakoa entzun ondoren norbaitek galdetu nahi badu zerbait, egin dezake.

I.E. Arazo handi bat daukat ezagutza eta erabilera dikotomia horretan erortzeko. Iruditzen zait ezagutza ezin dela handitu erabiltzen ez delako. Azkenean, erabiliz lortzen duzulako ikastea, eta erabileraz lortzen da ezagutza, eta hor gertatzen zaiguna da, azkenean, hizkuntza-kompetentzi mugatuagoa edo zabalagoa dugula. Baina ezagutza erabilera jakin batzuen baitan garatzen da beti, eta lortu behar duguna erabilera-eremu jakin horiek gero eta zabalagoak izatea da, eta hor kalitatez igotzea.

F.L. Azken 20 urteetan ikusten dugu %30eko ezagutza-mailako kopuruak %15-18 bitarteko erabilerari lotzen zaiela. Aztertu ditzakegu gizarte ezagutza, sareak, gaitasunak eta harreman posibilitateak, hau da, Txillardegiren matematikaren analisia, edo sakondu daiteke, eta esan: %18 sabai horren baitan zer bariabile daude? %30ko ezagutzari 18ko erabilera izan beharrean %22 izateko zer bariabile behar dira? Analisi hori ez da egiten. Datuak ez dira bakarrik atzera begira jarri behar baizik eta aurrera begira.

Gazteak gero eta euskaldunagoak dira, ingurune erdaldunetan bizi dira, horiek dituzten harreman-sareak batez ere erdaldunak dira, euskara baliatzeko dituzten aukerak urriak dira, eta, gainera, hizkuntza baliatzeko duten gaitasun erlatiboa urria da.

Atalase-puntu bat dago, urterik urte ateratako medietan oinarrituta, %40aren inguruan. Puntu horretara arte pertsona bat baino gehiago euskaldundu behar dira euskara erabiltzen duen euskaldun bat irabazteko. Aldiz, puntu horretatik aurrera euskalduntzen den pertsona bakoitzeko, erabiltzen duen lagun bat baino gehiago irabazten da.

Eusko Jaurlaritzaren ikerketetatik ateratako datuak arabera igo egin da euskararen erabilera sozialagoetan, egia da, %6an dago —sei eta piko da igoerarik handiena—. Ez dut baloraziorik egingo baino jaitsi egin da erabilera egunerokoan, hau da, hurbilekoetan, jaitsi egin da 15 urteetan. Gainera, egoera formal horiek, igo egin den inguru horietan oso aldirokoak dira, ez dira egunerokoak. Hau da, banku edo kutxakoekin ez dugu egunero hitzegiten, udaletxekoekin, osasun zerbitzuekin, Eusko Jaurlaritzako funtzionarioekin edo administraziokoekin ez dugu egunero hitz egiten. Aldiz, egunerokoetan ez gara igo. Horrek ekarri beharko luke galdetzer eta analizatzea hor azpian zer baliabide eta motibazio dauden. Jaurlaritzak eta Kontseiluak beren txostenetan garrantzia ematen diote, sarri, euskara baliatzea norberaren erabakia izateari; norberaren erabakiaren baitan zer dagoen da, nire ustez, analizatu beharko litzatekeena.

E.O. Nik uste dut lehendabizi komeni dela egiten den azterketa ere zehatza izatea, eta zehatzak izatea eskuetan dauzkagun datuekin. Ezagutzak gora egin du eta erabilerak ere gora egin du. Inkesta Soziolinguistikaren emaitzak aurkeztu genituelarik biharamunean hedabide batzuetan “ezagutza edo erabilera jaitsi egin da” erako gauzak irakurri nituen. Titular batean irakurri nuen “gazteak gutxiago erabiltzen du euskara”. Gazteen artean hizkuntzaren erabilera bikoiztu egin da hamabost urtetan. Hori da datuek erakusten dutena. Orain, eremu formaletan euskararen erabilerak gora egin du eta ez-formaletan behera egin du.

Familia-giroan hizkuntzaren erabilerak behera egin du baina oso aintzakotzat hartu behar dugu familien tipologia aldatzen ari dela, baita ere gure gizartean. Garai batean sarriago gertatzen zen bikoteak elebidunak izatea eta, beraz, haien artean euskaraz egiteko aukera izatea. Gaur egun sarriago gertatzen den fenomeno da bikoteko batek euskara bada kiela eta besteak ez. Beraz, nekez gerta liteke familia-giroan hizkuntza politikan dezente aurrerabiderik gertatzea, hain zuzen ere egoera hori bideratzeko gai ez garen bitartean. Horregatik atentzioa jarri behar da, batez ere, geroz eta elebidunagoak diren adin-tarte horretakoen portae-ra zein izango den etorkizunean. Horien parte-hartzean lortuko baitugu familia-giroan eta familia-transmisioan aurrerapauso sendoagoak ematea etorkizunean.

Gaur egungo testuingurua zein den abiapuntutzat hartuta, zailtasunak non ditugu nagusiki? Nik uste dut zailtasun handienak hiriguneetan ditugula; zailtasunak ditugu, hain zuzen ere, gazte-belaunaldi horien ekarria ez delako igartzen, biztanlerian suposatzen duen pisua txikia delako, hiriguneetan hizkuntzak baliatzeko aukerak txikiak direlako. Beraz, testuinguru horretan, ahaleginak biderkatu behar dira, hain zuzen ere, hizkuntza ikus dadin eta balia dadin, geroz eta leku gehiagotan.

Inportantea da testuinguru horretan gazte-belaunaldi horien ekarria aztertzea, eskolatik datorrenez gehienbat, eta zer eratako metodologiak

baliatzen ditugun ikustea, hizkuntzaren erabilera atxikimenduarekin eta atxikimen-bidetik etorriko delako.

Nire ustez, etorkinen fenomeno —ikusiko dugu horrek etorkizunetan zer bilakaera hartzen duen—, eskuartean ditugun datuekin ikusten ari gara apaltzen ari dela, eta gainera atzerantzko joera duela. Beraz, horrek ere eragina izango du etorkizuneko datuetan, baino ezin gutxietsi deza-kegu bi faktorerengatik: 2001ean etorkin-kopurua 25.000koa zen, 2006an 100.000koa eta 2007an 120.000koa; horietatik gehienak, 30 urtez azpikoak dira. Beraz, gazteak dira eta erdaldunak; gurea bezalako gizartearen biztanleriak aurreko urteetan beherantz egin du. Horrek zer eragin du datu orokorreirengatik? Jaiotze-tasa ere gora egiten ari da, baina jaiotze-tasa non egiten ari da gora?, eta zeri esker? ba etorkinek geroz eta ugariago, etorkinen seme-alabak ugartzen ari direlako. Horrek ere familia-giroan badauka bere eragina.

O.A. Elebidunen kopurua gehitu den arren elebidunen erabilera ez da hazi, gizarte osoa kontuan hartuta erabilerak gora egin du eta elebidunen kopurua kontuan hartuta, ez.

E.O. Beno, adibide bat jartzearen: azken finean ez da galdu. Erabilerak gora egin du elebidunen kopuruak gora egin duelako, gutxi gorabehera hamabost urtetan 127.000 gehiago dira.

Orain, hartzen baditugu, eman dezagun, 1991ko bost elebidun, horiek zenbat erabiltzen zuten euskara bere eguneko jardunean? eta hamabost urte beranduago elebidunek zenbat erabiltzen dute beraien eguneroko jardunean? ba hor dago galera. Zergatik gertatzen den hori? 1991ean elebidunak batez ere kontzentrazio demoliuistiko altuko gunetan bizi zirelako, euskara baliatzeko aukera ugariagoak zituztelako, familia-giroan eta abar. Hamabost urte beranduago ordea gunen biziki erdaldunetan bizi dira gehienbat; haien artean euskaraz jarduteko aukera urriagoak dituzten gunetan. Gainera hizkuntza-gaitasuna apalagoa dute. Fenomeno hori ez zen gertatzen horrenbeste 1991ean. Lehenago komentatu dut: 16-22 urte bitartekoen artean %25 elebidunak ziren gutxi gorabehera; 15 urte beranduago, %45 dira, eta elebidunen erdia kontzentrazio demoliuistiko handiko gunetan bizi dira gaur egun. Beraz, erabilerak gora egin du, ezagutzak gora egin du, euskara dakitenen kopurua igo, hazi egin delako, baina elebidunek heuren, nolabait, eguneroko jardunean gutxiago erabiltzen dute euskara, oro har hartuta.

E.L. Nirea ez da irakurketa horren positiboa. Baliabide demografikoak aipatzen badira funtsean, ez al dira beste bariabak batzuk ere mugitu behar politikatik hori aldatzeko? Faktore horien aurrean nola eragin bilatu behar dugu, hizkuntzaren erabilera eta ezagutza ez dadin gera aldagai demografiko hutsetan. Nik jakin nahiko nuke norberaren eraba-

Jaurlaritzak eta Kontseiluak beren txostenetan garrantzia ematen diote, sarri, euskara baliatzea norberaren erabakia izateari; norberaren erabakiaren baitan zer dagoen da, nire ustez, analizatu beharko litzakeena.

**Zailtasunak non ditugu
nagusiki? Zailtasun
handienak hiriguneetan
ditugula; zailtasunak
ditugu, hain zuzen ere,
gazte-belaunaldi horien
ekarria ez delako
igartzen, biztanlerian
suposatzen duen pisua
txikia delako,
hiriguneetan hizkuntzak
baliatzeko aukerak
txikiak direlako.**

kia euskararen aldekoa izan dadin zein diren mugi daitezkeen demografiaz beste baliabideak. Hau da, esate baterako, lagun bat hiritartzen denean lehengo giroan zeukan hizkuntza jarrerarekin jarrai dezan, edo kanpotik etortzen denean pertsona batek euskaraz ikasi behar duela erabakitzeke zein dira bariabideak: *pixka bat es mucho* baina ez ote den *pixka bat nahikoa da*?

Gainera diskurtso bat zabaltzen ari gara maila horretan. XXI mendeko Txostenean bi orri bakoitzeko erdaldunentzako keinu bat dago: “erdara hemengo hizkuntza da”, “gure helburua diglosi jasangarria da”, “euskaraz ez du edukiko erdaldunek duten sakontasuna zenbait arlotan”. Aldiz, euskaldunarentzako, euskaraz hitz egiten duenarentzat —desagertu egin da azken azterketa soziolinguistikoan datu hori— zer egin behar dugu? nik ez dut uste hizkuntza-politikaren bazterrean utzi behar denik datu hori, datuen analisia egiten dugunean. Datu horiek ematen dituzten aldagaiak, sozialak eta pertsonalak asmatzeko da, bilatzeko eta aurkitzeko, eta behin aldagai horiek definitu ditugula, hurrengo urteetarako aldatzeko.

E.O. Beno, etorkizunaz ari garenean hizkuntzaren transmisioan eragitea puntu garrantzizkoa da. Hori gainera neurtutako eta aztertutako puntu bat da. Gaur egun Euskal Autonomi Erkidegoan, oro har, esan dezakegu euskararen transmisioa bermatuta dagoela. Ez da horrela gertatzen Nafarroan, ez eta Iparraldean ere. Hori da, hain zuzen ere, gabezi inportantea. Iparraldean galera hori bistakoa da.

Gazteen ganean hitz egiten dugunean, jakin beharko genuke azken finean gazte horiek zer dela-eta euskarara gerturatu diren, zeren bitartez, nola egin zaien atsegingarri euskara eta zergatik ez duten bizi euskara normaltasunean. Aukera-ikuspegi batetatik ikusi beharko litzateke. Euskara erakargarri gertatu behar zaie euskararen erabilera gertatu ahal izateko; horrek esan nahi du egiten den produktu-eskaintzen barruan erakargarritasuna kontutan hartu beharreko puntu bat dela, eta horrek esan nahi du euskara baliatzeko aukerak eduki behar dituztela.

Kontua ez da zer egin behar den erreparatzea, esaterako, 4. guneetan, bereziki euskara nagusitzen den puntuetan zer gertatzen den ikustea. Hor ere, erabilerak behera egiteko badira arrazoiak eta etorkizunean gerta daitezkeenaz aurreikuspenak baditugu.

Hizkuntzaren erabileran aurrera egin nahi badugu pentsatu beharko dugu ezagutza pasiboa nolabait prestijiatu behar dela, eta nolabaiteko aitormena egin behar zaiela, gutxienez ezagutzeko edo ulertzeko gauza diren herritarrei —batez ere adin batetik gorakoen kasuan—. Hori sustatu eta indartu egin beharko dugu hizkuntzaren erabileran aurrera egin ahal izateko etorkizun hurbilean. Kendu egin beharko ditugu hizkuntzaren erabileran hitz egiten dugunean ere, zuzenkeriazko irizpideak —edo ondo hitz egiten ari garen edo ez—, eta horren inguruko gehiegizko presioa; euskara lotsarik gabe erabiltzeko baliabideak nolabait indartu egin beharko

ditugu etorkizunean. Beraz, lan-lerro ugari dira etorkizunean garatu beharrekoak hizkuntzaren erabilera eta ezagutzan aurrera egin ahal izateko.

O.A. Beno, bigarren zatira pasatuko gera. Taula horretan hiru datu ditugu: hizkuntza-gaitasuna, lagunekin erabilera aitortua (IV Inkesta Soziolinguistikoaren datuak) eta Kale-erabilera. Bertan ikusten da, oro har, urte hauetan hizkuntza-gaitasunak eta erabilerak gora egin dutela. Baina azken epealdian, 2001-2006ra bitartean, gorako hori apalagoa izan da aurreko urteetan baino, eta erabilera ez da ezagutzaren erritmo berean hazi.

E.L. Datu honi bakarrik begiratuta esango dugu erabilera igo egin dela lagunartean, %3a 15 urtetan. Gainera, lagunarte horietan elementu demografikoak ere pisu gutxiago daukate, kidesun bat badago eta aitormen homogenoagoak dira; eta hala ere, %3a besterik ez da igo. Kale-erabilera beti txikiago izaten da bestea baino, aitortua baita; errazago aitortzen dugu euskararen erabilera egoera formaletan eta aldi behingo eguneroko egoeretan baino. Konklusio bezala, nik uste dut hazkundera motel doala, eta baita ere erabileraren hazkundera gehiago sakondu beharko genukeela, analisisetan etb.

Adibide bat da euskara-plana dagoen enpresa bat; asko igo den elementuetako bat da lankideekin euskara erabiltzearena. Hori izan da hazkunderik handiena. Ez du esaten euskaraz lan egiten duenik baizik eta lankideekin egiten duen. Euskara-plana erdaraz lan egiten duen enpresarentzat oso eroso da, izan ere, subentzionatutako itzulpena badago. Neuk euskaraz lan egitea erabakitzen badut ordea, erdarara pasatzeko ez dago. Beraz, nik egin behar dut euskaraz eta egin behar dut erdaraz, egunero, ez baitago dirurik horretarako. Lan giroan mikro-erabaki barietatea da nire hautua: ba ote dago azpiegiturarik euskaraz lan egitea erabakitzen badut? Hori hainbat tokitan dago, hori da mikro-erabakien adibideetako bat. Makro-erabakiaren adibide bat: enpresa batek ez dakit ze makinatan edo gauzatan inbertitzea erabakitzen badu hiru-lau urte barru kenkari fiskalak izango ditu. Aldiz, euskara-plana egin nahi duenak Kultura Saileko beste erdibideko batek onartuko dio edo ez. Zergatik ez da ezartzen, esate baterako, haziendako kenkari bat euskara-plana egin nahi duen enpresarentzat? Eta diru hori guztia euskara-plana aurrera ematen erabili?

E.O. Hausnarketa gisara balio behar lukeen beste elementu bat: erabilera non hazi da? erabilera, batez ere, eremu formaletan hazi da. Eremu ez-formaletan erabilera, ez bakarrik ez da hazten ari, hainbat eremutan behera egin du.

Eremu formaletan erabilera hazi da hein handi batean herri aginteei hartu dituzten erabakien ondorioz, eta nire kezka honako hau da: administrazioan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen arloan eta hainbat arlotan erabakiak har ditzakegu, baina eragina...

Nik jakin nahiko nuke norberaren erabakia euskararen aldekoa izan dadin zein diren mugi daitezkeen demografiaz beste baliabideak.

Gaur egun Euskal Autonomi Erkidegoan, oro har, esan dezakegu euskararen transmisioa bermatuta dagoela. Ez da horrela gertatzen Nafarroan, ez eta Iparraldean ere. Hori da, hain zuzen ere, gabezi inportantea da.

Adibidez, azkena hartua izan duguna nahikoa kritikatu izan dena mutur batetik zein bestetik; batzuentzat gehiegizkoa izan da eta beste batzuentzat gutxiegia. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen arloan, hor sortuak ditugu egiazko aukerak kontsumitzaile eta erabiltzaileek euskara balia dezaten. Baina etorkizun hurbilean izango dugu egiazko ebaluazioa egiteko aukera, kontsumitzaile eta erabiltzaileek benetan aukera horiek eskuera dituztenean baliatzen ote dituzten edo ez jakiteko. Gai hori guretzat behintzat kezka-iturri da. Herri aginteek zer egin dezakete ezagutza handitzeko, erabilera areagotzeko, erabiltzeko aukerak areagotzeko, harreman-sareak indartzeko, arnas-guneak areagotzeko, baliabidez hornitzeko hizkuntza-erkidegoa? Kontua da ezin dela legez ezarri, norbanakoaren eskutan baitago neurri handi batean hizkuntza-hautua egitea. Noski, elebkarrek ezin dute hauturik egin. Horregatik lehenago aipatu dut etorkizuneko erronka garrantzitsuena dela ahalik eta pertsona heldu gehien, gutxienez hizkuntz pasibo izatera iristea. Badakigu zein zaila den lan-munduan hizkuntzaren erabileran eragitea, estimulatzea, indartzea. Egundoko arazoak ditugu hizkuntza erabiltzeko edo hizkuntza indarberritzeko programak txertatzeko. Gu behintzat, ez bakarrik eremu horretan beste hainbat eremutan ere pizgarri fiskalak jartzeko bideak aztertzen ari gara, kontuan hartuta, Diputazioen eskuduntzak zein diren eta Jaurlaritzaren eskuduntzak zein diren.

O.A. Hirugarren atalera joago gara. Hizlari bakoitzari puntu bana jarriko diogu. Ferminen kasuan, Hausnartu sarietan egindako lanean aipatzen da atalase-puntu egonkor bat badagoela euskararen ezagutzaren %45aren inguruan, eta atalase-puntu horretaraino ezagutzaren hazkundetasa handiagoa dela erabilpenarena baino.

F.L. Horri lotuta nire tesia da herriz herriko hizkuntza-politikak egin behar direla, tokiz tokikoak. Nire ustez, funtsean, hizkuntza bat erabiltzeko edo ez erabiltzeko erabaki pertsonal bat hartzen dugunean, erabaki pertsonala da, baina onura-funtzio baten arabera hartzen da. Onura-funtzioa 5 bariabilez osatuta dago nire ustez: bat, komunikazio-ahalmena; bi, jakintza edo informazioa eskuratzeko ahalmena; hirugarrena, identitatea, - identitatearen baitan azpi aldagaiak: entitate gertukoa eta ama-hizkuntzari lotua, ideologia edo erabaki politiko eta pertsonal baten arabera (neronek erabakitzen dut euskalduna izatea) eta inklusioa; laugarrena, baliabideak eskuratzeko ahalmena, hobeto bizitzea baldintzatzen duena, eta, bosgarrena, eskusioaren baliabidea. Onura-funtzioaren formula honakoa izango litzake: k+ jakintza + identitatea + baliabideak eskuratzeko ahalmena – eskusioa.

Bost bariabile horietatik, lehenengo laurak balioa handitzen dute, eta azkenengoak murrizten. Hau da, nik euskaraz lan egin nahi badut, erdaraz lan egitea erabaki duenaren aldean nire jarduna ez dadila garestiagoa izan. Urte askotan jende asko etortzen zen euskara ikastera uste zuelako

lanean beharko zuela euskara, eta, beraz, hobeto bizitzeko behar zuela. Gainera datu esanguratsua da euskaraz dakitenek soldata maila hobeak dituztela, soldata hobeak dituztela, etb. Hori gertatzen da Ingalaterran ingelesa dakitenekin eta alemanez jarduten dutenekin etb. Hemen ere, maila jakin batzuetan hori gertatzen dela erakutsi behar dugu, eta, beraz, erakargarriagoa izango da ez dakienarentzat hori lortu nahi badu. Gero bakoitzak emango dio horri balio pertsonala, baina instituzioek hizkuntza-politikan eragin nahi duenean bariabile horien guztien azpiko elementuak indartu behar ditu.

Azken interbentzioa dela aprobetxatu nahi dut hasieran egunkariaren aipamena egin delako, horixe esan nahi nuen. Orain dela 6 urte Madrileran nindoan egunkari bat egin genuelako. Atxilotu gintuzten eta guarda zibilek esaten zidaten behin eta berriro “a tí lo del euskara ya se te a acabado” sei urte pasata gero, gaur, hemen gaude, eta Egunkariaren alde egin duzuen aipamena eskertu nahi dut.

O.A. Erramunen puntuarekin jarraituko dugu.

Inkesta Soziolinguistikoaz eta Kale-neurketaz aritu gara baina euskararen gaitasunaren inguruko datu interesgarriak ere zentsuaren bitartez jaso ahal izan dugu orain arte. Arazoa da iturri batera edo bestera jo ezkeru emaitzak ez datozela bat. Klusterrean bertan, eta inguruan ditugun eragileen artean, datu horien aurrean nolabait zer egin ez dakigula gaude eta zuen iritzia ezagutu nahiko genuke.

E.O. Beno, lehendabizi zuzenketa bat: datu horiek ez dira, berez. zentsukoak. Azken zentsua 2001an egin zen. 2006koak, beraz, ez dira zentsukoak, erroldakoak baizik. Zentsua hamar urtetik behin egiten da, biztanleria osoaren datuak kontuan hartuta. Erroldakoetan, aldiz, metodologia desberdina da, 1996tik nolabait baliatzen dena. Errolda egunero ari da eguneratzen. 2006ko azterketa Eustat-ek egin duenaren parte bat da, 2001eko zentsuan jasotako biztanleriari buruzkoa. Beraz, hori ez da aldatu, eta 2006an gaineratu zaio biztanleria-multzo berria, gutxi gorabehera miloi erdi bat. Beraz, metodologia-aldaketa bat badago hor, eta, nik uste, metodologia-aldaketak gertatzen direnean oso tentu handiz hartu behar direla datuak, eta ikusi behar dela datu guztien atzean zer dagoen.

Bigarren oharra: guk erabiltzen ditugun parametroak dira Inkesta Soziolinguistikotik bildu ditugun datuak, erroldak eskaintzen dituenak, eta horrez gainera Eustat-ek egiten duen populazio-inkesta bat. Populazio-inkesta hori 61.000 lagunei egina da. Beraz, hiru iturri horiek baliatzen ditugu azterketak egiten ditugunean. Eta hiru horien artean badira aldeak.

Hirugarren oharra. Kontuan izan behar dugu Inkesta Soziolinguistikoak 16 urtetik gorako biztanleria hartzen duela kontuan eta, aldiz, erroldak eta zentsuak biztanleria osoa. 15 urtetik beherakoak gutxi gorabehera biztanleri osoaren %13 zen 2006an. Beraz, horren ekarria ere kontuan

Hizkuntzaren erabileran aurrera egin nahi badugu pentsatu beharko dugu ezagutza pasiboa nolabait prestijiatu behar dela, eta nolabaiteko aitormena egin behar zaiela, gutxienez ezagutzeko edo ulertzeko gauza diren herritarrei.

*Euskara-plana erdaraz
lan egiten duen
enpresarentzat oso eroso
da, izan ere,
subentzionatutako
itzulpena badago. Neuk
euskaraz lan egitea
erabakitzen badut ordea,
erdarara pasatzeko ez
dago.*

hartu behar da, hain zuzen ere, adin-tarte hori delako elebidunena hizkuntzaren ezagutzari dagokionez. Nolanahi ere, guk alderik handiena euskaldun berrien ekarrian ikusi dugu, erroldako datuen eta Inkesta Soziolinguistikoaren artekoetan. Hori gertatzen ari da, Eustat-ek erakutsi dizkigun datuen arabera behintzat, gunerik erdaldunenetan.

Bi fenomeno gertatu dira: gune euskaldunetan behera egin dute ezagutzak eta erabilerak, eta gune erdaldunetan gora egin du elebidunen ehunekoak, nagusiki Araban eta Bizkaian. Gure auresuposaketa zen gunerik euskaldunetan gertatzen ari den bilakaera horren arrazoia, hor, biztanleriaren leku-aldaketak gertatzen ari zirela. Hori hein handi batean neurtzerik izan dugu. Hainbat eskualde eta udalerrri euskaldunetara jende berria joan da baina hor, euskaldunen erabilera nagusia zen lekuetan, nagusiak, hil egin dira, eta, beraz, testuinguru horretan aldaketak gertatu dira gunerik euskaldunetan.

Nolanahi ere, bai erroldako datuek, bai 61.000ko inkestak, bai Inkesta Soziolinguistikoak, hirurek, bat egiten dute. Oro har joerak berberak dira hizkuntzaren ezagutza eta erabilerari buruz: familia-giroan gune soziolinguistiko guztietan beherantz egiten du erabilerak, ezagutzak goranzko joera erakusten du eta, nire ustez, joerak dira aintzakotzat hartu behar ditugunak, eta datu absolutuei begiratzen badiegu tentu handiz baliatu behar ditugu, batez ere, euskaldun berrien ingurukoak.

O.A. Hirugarren puntua Itziarri. Beno, Inkesta Soziolinguistikoaren ondorioa da Euskal Herrian eta baita Euskal Autonomi Erkidegoan ere gazte elebidunen erdiak baino gehiagok (16-24 urte bitarte) gaztelania duela lehen hizkuntza, eta erraztasun handiagoa duela erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

Azken Kale-neurketan, 2006an egindakoan ere, ondorio hori azpimarratu genuen. Beno, ikastolan eguneroko jardunean 18 urtetik beherakoekin duzue harremana, baina pertzepzio bera duzue?

I.E. Bai, nik uste dut pertzepzio eta kezka hori badagoela ikastoletan, eta frustrazio hori ere badagoela. Lehen esaten genuen bezala, hor, aurrera begirako ildoak markatzerakoan ezagutza/erabilera dikotomia horrek ez digu ezertan laguntzen. Gizarte-joera orokorrez hitz egiteko eta zenbakiaz hitz egiteko nahi eta nahiezko dikotomia izan daiteke, baina, lan kualitatiboetara eta bariabile pedagogikoetara jaisteko momentuan, eta guri dagozkigunetara begiratzen jartzen garenean, etengabeko frustrazio horrek ez digu laguntzen: “ezagutzen dute euskara baino ez dute erabiltzen”. Horri eman dakioken erantzun bakarra —eta horretan murgilduta egon gara urteetan— da: “ez dutelako nahi”, “ezagutzen badute eta erabiltzen ez badute ez dutelako nahi da”. Azkenean, borobil horretan egin dezakegun gauza bakarra motibazioari begira lan egitea da, eta horretan aritu gara urte askotan.

Motibazioa inportantea da baina nik uste dut beste motatako pentsamolde batzuk ere planteatu behar ditugula. Hizkuntza-konpetentziaz hitz egiteak laguntzen digu. Ezagutza eta erabilera banaezinak dira: testuinguru eta eremu jakin batzuetan zeregin batzuetarako ezagutu eta erabili egiten dugu hizkuntza, eta eremu horietan gure ikasleak moldatzen dira. Gazteak eskola-eremu akademikoan behar dituzten gauzetarako erabili eta ezagutu egiten dute euskara. Problema da, gero, beste eremuetako erabilera neurtzen dela, eta beste zeregin batzuetarako. Eta horretarako euskara ez dute ezagutzen, ez da ez dutela erabili nahi, baizik eta hor erabili behar duten erreperitorio linguistiko hori ez dutela ezagutzen. Eta hori da momentu honetan ikastoletan egiten ari garen hausnarketa; planteatzen du eskolaren komunikazio-testuinguru naturala eta akademiko, eta horrek erreperitorio linguistiko jakin bat dakar.

Hori nola zabaldu izango litzateke egin daitekeen lehen planteamendua; eskolako komunikazio-testuinguru horren kalitatea nola hobetu. Sei orduz eskolan dagoen ikasle batek bost orduz entzuten badu, nola eskatuko diogu gero lagunekin euskaraz egiteko? Egin dezala lehendabizi gelan, eta landu dezagula, eta hortik aurrerako bidea gizartearekin batera jorratu beharko dugu. Hori ere eskolaren zeregina da, ikastolarena behintzat bai; azkenean normalkuntza horretan eragile-funtzioa badaukagu eta ikastola-sarean helburu bezala ere badaukagu. Beraz, gure zeregina da gizartearekiko joan-etorri horretan lankidetzat horiek eta aipatutako bide ireki horiek zabaltzea.

O.A. Besterik esan nahi duzue?

F.L. Euskara XXI. txostenean esaten da euskarak ez duela sekula hartuko erdarek duten potentzia hainbat arlotan, esate baterako, aisian. Nik uste dut zuk esan duzun bezalaxe dela, baino, medioak ez direla behar beste ondo zuzentzen. Gure semeek 18 eta 13 urte dituzte. Gure seme zaharrenak eskolaz kanpo eskubaloian 6 urtetan entrenatzaile euskaldun bakarra izan du, bakarra urte betez; txikiak oraindik ez du eduki. Futbolean ari direnetik gutxi gorabehera %70a erdalduna da —buruz ari naiz—. Beraz, uste dut ondo dagoela datuen izaeraz-eta jardutea baino, azpian, minutuz minutu gertatzen denaz baliabideak jarri behar dira. Badaude 10.000 kexa Behatokiak botatakoak azkenengo urteetan, eta orain iragarri egiten da 300 direla Elebiden jasotakoak. Beno ba 10300 kexa egon dira. Zer bide ematen zaie horiei? Ez da murrizten ari kexa-kopurua.

E.O. Nik azken iruzkin bat egin nahi nuke. Gazteaz hitz egiten ari garenean guk ere pentsatu beharko dugula ba, pentsatzen dut, ez bakarrik guk zer nahi dugun baizik eta eurek zer nahi duten; ez guk nola bizi dugun euskara, baizik eta nola bizi duten eurek. Ez dezagun pentsa euskara guk bizi dugun moduan bizi dutenik. Beraz, hori onartzen dugun

Metodologia-aldaketa bat badago hor, eta, nik uste, metodologia-aldaketak gertatzen direnean oso tentu handiz hartu behar direla datuak.

Bi fenomeno gertatu dira: gune euskaldunetan behera egin dute ezagutzak eta erabilerak, eta gune erdaldunetan gora egin du elebidunen ehunekoak, nagusiki Araban eta Bizkaian.

Oro har joerak berberak dira hizkuntzaren ezagutza eta erabilerari buruz: familia-giroan gune soziolinguistiko guztietan beherantz egiten du erabilerak, ezagutzak goranzko joera erakusten du eta, nire ustez, joerak dira aintzakotzat hartu behar ditugunak, eta datu absolutuei begiratzen badiegu tentu handiz baliatu behar ditugu, batez ere, euskaldun berrien ingurukoak.

*Ezagutu eta erabili egiten
dugu hizkuntza, eta eremu
horietan gure ikasleak
moldatzen dira. Gazteak
eskola-eremu
akademikoan behar
dituzten gauzetarako
erabili eta ezagutu egiten
dute euskara. Problema
da, gero, beste eremuetako
erabilera neurtzen dela,
eta beste zeregin
batzuetarako. Eta
horretarako euskara ez
dute ezagutzen, ez da ez
dutela erabili nahi, baizik
eta hor erabili behar
duten erreperitorio
linguistiko hori ez dutela
ezagutzen.*

*Sei orduz eskolan dagoen
ikasle batek bost orduz
entzuten badu, nola
eskatuko diogu gero
lagunekin euskaraz
egiteko?*

neurrian eta lagun hurkoaren azalean jartzen garen neurrian gure lehen-
tasunak besteentzako ez direla agian horrenbesteko lehen-tasun kontura-
tuko gara, gure kezkek ez direla, behar bada, lagun hurkoarentzat
horrenbesteko kezka. Beraz, abiatu gaitzen hortik ikusteko, etorkizun
hurbilean are gehiago aldatuko den euskal gizartean, zer egin behar
dugun hizkuntza indarberritzen jarraitzeko.

O.A. Amaitzeko esan dezadan mahi-inguruan atera diren ondorioak
sarean jarriko direla datozen egunetan patxadaz hausnartu dezazuen.
Besterik gabe, eskerrik asko, Fermin, Erramun eta Itziar Klusterraren
gonbidapena onartzeagatik eta eskatutakoa horren ondo betetzeagatik.■